



Prentsa oharra

2004tik ari dira elkarrekin kooperatiba eta WWF

AURTEN ERE, "PLANETAREN ORDU" KANPAINAN PARTE HARTUKO DU EROSKI-k, WWF-K SUSTATUA

- Datorren larunbatean, EROSKI bat egingo du ingurumenaren alde munduan egiten den itzalaldi sinbolikorik handienarekin; aurtten, "Itzali naturagatik" leloarekin
- EROSKI eta WWFk lankidetzan dihardute, hitzarmen baten harira, ingurumen politika zenbait sustatzeko: arrantzalekuen ustiapen iraunkorra, energia efizientziaren hobekuntza eta kontsumo arduratsua

Elorrio, 2019ko martxoaren 27a.- [EROSKI](#)k bederatzigarren urtez egingo du bat [WWF](#)k Nazio Batuen Erakundearen babesarekin antolatzen duen ["Planetaren ordua"](#) kanpainarekin. Hala, itzalaldi sinbolikoa egingo du Elorrioko egoitza sozialean eta [www.consumer.es](#) webgunean; martxan jarraituko du webak, baina argi apalagoarekin, eta, horrez gain, ekimenaren berri emango du webgunean bertan eta sare sozialetan. Mundu osoko milioika pertsonak itzaliko dute argia ordubetez (20:30etik 21:30era bitartean, martxoaren 30ean, mundua kontzientziatzeko ingurumenaren garrantziaz eta klima aldaketaren kontrako borrokaz. Aurtengo leloa "Itzali naturagatik" da.

"Urte honetan ere, EROSKI babesa eman nahi dio WWFren ekintza honi, zeina munduan ingurumenaren alde egiten den ekimenik handiena baita. Kontsumitzaileek gero eta eskakizun handiagoak egiten dituzte iraunkortasun irizpideetan, eta EROSKI lanean ari gara kontsumo arduratsuaren inguruko eskakizun horiek betetzeko", esan du EROSKIko Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Caprabok ere bat egingo du itzalaldi sinbolikoarekin, eta, erdira gutxituko ditu argiak bere egoitzan, plataforman eta Kataluniako, Nafarroako, Huescako eta Andorrako sarearen denda eta frankizia guztietan. Bestalde, Vegalsak ere bere egoitzako errotuluak itzaliko ditu Galizian, Asturiasen eta Gaztela eta Leonen.

Hauek dira kooperatibaren Ingurumen Planean datozen ekintzarik esanguratsuenak: energia kontsumoa gutxitzea eta energia berriztagarriak erabiltzea, birziklatzea, isuriak gutxitzea, ekodiseinuaren bidez ontziak optimizatzea

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



eta Zurekin eredu komertzialera egokitutako EROSKIren denden ingurumen iraunkortasuna handitzea. Era berean, EROSKI eskaintzetan ingurumen bermeak ematen ditu bere zentro guztietan; esaterako, zurez egindako produktuak baso iraunkorretatik datozela erakusten duen FSC zigilua, edo arraina arrantzaleku iraunkorretatik datorrela erakusten duen MSC zigilua. Gainera, EROSKI da txikizkako banatzaile bakarra ziurtatzen duena bere zaintza katean arrain freskoa itsasoko ekosistema gehiago errespetatzen duten arrantzalekueetatik datorrela.

CO₂ gutxiago

Belaunaldi berriko gure denda sarearen energia efizientzia asko hobetu da, azken belaunaldiko hotz instalazioen diseinu klimatikoari esker eta LED erako argiztapen sistema zentralizatu bati esker.

Gaur egungo garraio ereduak aldaketak ekarri ditu ibilbide guztietan, hasi hornitzaileetatik eta plataformetaraino, baita hortik dendetarainoko banaketa kapilarra ere. Kudeaketa sistema horrek (TMS) ibilbideen plangintza eta motorizazioa optimizatzen du, eta horniketa hobetzen, ibilbideetan aurreztuta, gidatzeko denboran, kilometroetan eta erregaian. Lau urte honetan %14 gutxitu dugu garraioan igortzen dugun CO₂ kopurua, hau da, 11.000 tonatik gora gutxiago.

EROSKI eta WWF elkarrekin ari dira duela 15 urtetik hona, eta 2014an lankidetzaz hitzarmen bat egin zuten ingurumen politika zenbait aurrera ateratzeko, hala nola arrantzalekuen ustiapen iraunkorra, energia efizientziaren hobekuntza, kontsumo arduratsuagoaren sustapena, arrantza iraunkorraren sustapena, eta jardunbide iraunkor egokikoak diren produktuak EROSKIren marka propioarekin. Horrez gain, hemendik aurrera, WWFk kolaboratu egingo du www.consumer.es aldizkarian, nola eta bere kanalean ingurumenaren gaineko kontuan argitaratuta, eta abala emango du kooperatibak elikadura osasungarriari buruz duen programan, [Ekilibrian](#).

Bestalde, WWFk eduki pedagogikoak lantzen dihardu iraunkortasunaren gaineko modulu espezifiko baterako, [EROSKIren Elikadura Eskola](#)ko Elikadura eta Ohitura Osasungarriari buruzko Heziketa Programaren barruan, Espainia guztiko ikastetxeekin elkarlanean. 2017-2018ko ikasturte honetan, seigarrenez ari dira programa betetzen, eta helburua da ikasleak sentsibilizatzea elikadura orekatua eta ohitura osasungarriak izatearen garrantziaz. Ikasleek erosketa osasungarria egiten ikasten dute EROSKIren denda batean, eta aukera dute elikagaiak ekoizten dituen nekazari baten etxaldea ikusteko, bertatik bertara ezagutu dezaten janaria nondik datorren.

EROSKI

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.652 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki bizi ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta elkartasunean.

WWF

WWF natura babesteko mundu erakunde independenterik handienetako eta eraginkorrenetako bat da. Haren helburua da Lurreko ingurumen hondamendia geldiaraztea eta gizakia etorkizunean naturarekin harmonian biziko den etorkizun bat eraikitzea, aniztasun biologikoari eutsita, baliabide berriztagarri naturalen erabilera iraunkorra ziurtatuta eta kutsadura eta neurrigabeko kontsumoa gutxitzen lagunduta.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)